

Enpresaren ekonomiako hiztegia

Unibertsitatera sartzeko ebaluazioa (selektibitatea)

Egilea : Josemari Sarasola



Gizapedia

gizapedia.hirusta.io

Aktibo korrontea (aktibo zirkulatzailea) (2015eko ekaina) • Enpresa batek urtebete baino lehenago eskudirutan bihur ditzakeen ondasun eta eskubideak, hala nola izakinak eta bezeroek ordaindu beharreko fakturak.

Akzioa (2017ko ekaina) • *Sozietate* bateko *kapital soziala* banatuta dagoen zatietako bakoitza.

Akzioduna (2015eko uztaila) • *Sozietate* bateko akzioak dituztenetako bakoitza. Akziodun izateak eskubidea ematen du sozietatearen erabakietan parte hartzeko, akzioduna sozietatearen jabeetako bat denez.

Automobilgintza (2016ko ekaina) • Automobilak eta haienzako osagaiak ekoitzi eta saldu egiten dituzten enpresen *sektore* ekonomikoa.

Azpikontatazioa (2017ko uztaila, 2015eko uztaila) • *Enpresa* batek bere jardueraren fase batzuk burutzeko beste enpresa bat kontratatzea, kostua merketzeko helburuarekin zein antolaketa arrazoiengatik.

Banaketa (2015eko ekaina, 2014ko ekaina) • Produktua ekoitzi denetik bezeroak erosi arte burutzen diren jardueren multzoa (adibidez, produktua salduko den dendak aukeratzeara).

Bat egitea (2015eko ekaina) • Ikus, *fusioa*.

Berrikuntza (2014ko uztaila) • Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak balio gehigarria sor dezaten beste era batera baliatzea. Horretarako ahalmena loturik dago baliabide ekonomikoekin (adibidez, enpresan inbertsioak behar dira teknologia berriak txertatzeko), *giza kapitalarekin* eta enpresaren antolakuntzarekin batera. Labur, aberastasuna sortzeko ezagutzan inbertitzea da berrikuntza.

BEZ (2016ko ekaina, 2015eko ekaina) • Balio Erantsiaren Zerga. Merkaturatzen diren produktuak erosi eta zerbitzuak jasotzeagatik ordaintzen den *zerga*. Prezioari gehitzen zaion portzentaje moduan kalkulatu da eta zeharkako zerga da, hau da, bezeroak ordaindu arren, produktu edo zerbitzua saldu duen enpresa izango da zergaren zenbatekoa Ogasun Publikoari likidatuko diona.

Bideragarritasuna (2016ko ekaina) • Inbertsio edo beste proiektu ekonomiko batek aurrera atera eta bere helburuak betetzeko duen aukera eta ahalmena.

Burtsa (2015eko uztaila) • Akzioak eta beste finantza-baloreak (bonoak, adibidez) salerosten diren tokia eta salerosketa horiek erregulatu dituen erakundea.

Defizit publikoa (2016ko uztaila) • Estatu bateko diru-sarrerak irteerak baino txikiagoak direnean sortzen den egoera. Defizit publikoa finantzatzeko zor publikoa jaulki behar da, beste batzuek erosi dituzten bonoak merkatu-ratu alegia, epe jakin batera itzultzekoak eta jabeari aldiro estatuak ordaindutako interesak emango dizkietenak.

Deslokalizazioa (2014ko ekaina) • Enpresa batek lan-tegiak beste herrialde edo eskualde batean jartzea, jatorriko eskualdeko lantegiak itxiz, lan-kostu txikiagoak eta beste abantaila batzuk (azpiegitura egokiagoak, zerga txikiagoak, merkatuetatik gertuago egotea, ...) eskuratzeko. Deslokalizazio-erabakiak gatazkatsuak izaten dira, jatorriko eskualdean lanpostuen galera ekartzen baitu.

Energiaren kostuak (2014ko ekaina) • Elektrizitatearen eta erregaiaren kostuak. Sektorre batzuetan, siderurgian esaterako, kostu horiek handiak dira, eta enpresen egoera ekonomikoa guztiz loturik dago kostu horien bilakaerarekin.

Enpleguaren egonkortasuna (2017ko uztaila) • Langileak euren lanpostuetan mugagabe edo denbora luzean, muturrean lan-bizitza osoan, aritzen diren egoera da, langileen bizimodua bermatzeko.

Enpresa (2017ko ekaina, 2016ko uztaila) • Mozkin ekonomikoak lortzea helburu duen erakundea, lana eta kapitala bateratuz produktu eta zerbitzuak ekoitzi eta merkaturatzen dituena.

Entzuleria (2017ko uztaila) • Hedabide baten bitartez mezu bat jasotzen duen pertsona-kopurua.

Errentagarritasuna (2017ko uztaila) • Mozkinak sortzeko ahalmena da, egindako inbertsioa (errentagarritasun ekonomikoa) edo erabilitako finantza-baliabideak (errentagarritasun finantzarioa) kontuan hartuz, horiekiko erlazioan alegia. Adibidez, 200€-ko mozkinak izan badira, 1000€-ko inbertsio batean, errentagarritasun ekonomikoa %20 da. Errentagarritasun soziala ere aipatzen da, jarduera ekonomiko batek gizartean duen eraginari buruz.

ETE (2016ko ekaina) • Enpresa Txiki eta Ertaina (gaztelaniaz, Pequea y Mediana Empresa edo PyME). Langile kopuru, negozio-bolumen eta ondarearen balio muga zehatzak gairatzen ez dituen enpresa.

Estrategia (2017ko ekaina) • *Enpresa* batek bere helburuak lortzearren baliabideak bideratzeko modua, aurrez zehaztu eta erabakitakoa.

Europako ekonomia aitzindariak (2014ko uztaila) • Adierazle sozioekonomikoetan (hazkundera, langabezia tasa, ...) Europako herrialde puntakoenak. Ohikoa da ekonomia aitzindarizat Alemania hartzea.

Fakturazioa (2015eko ekaina, 2014ko uztaila) • Enpresa batean epe jakin batean izandako salmenta totalak, BEZa kenduta, eta fakturretan azaltzen denaren araberrakoa. Fakturazioan ez dira sartzen, beraz, interesak eta jasotako diru-laguntzak, besteak beste.

Finantzaketa (finantzatzea) (2016ko ekaina, 2016ko uztaila, 2015eko uztaila) • Enpresa batek inbertsioak egin, aktiboa eratu eta jarduera aurrera eramateko behar dituen diru-baliabideak, *pasiboa* osatzen dutenak, eskuratzeara.

Finantzaketa-iturria (2017ko ekaina) • Enpresak bere jarduera edo proiektu bat aurrera eramateko behar dituen diru-baliabideak (*pasiboa*) eskuratzeko duen modua. Barnekoa (enpresaren beraren baliabideekin) nahiz kanpokoa izan daiteke funtsean.

Fusioa (bat egitea) (2015eko ekaina, 2015eko uztaila) • Bi enpresa desberdin edo gehiago elkartzea, haien ondareak eta jarduerak batuz eta pertsona juridiko bakar bat osatuz.

Giza kapitala (2014ko uztaila) • Enpresan lan egiten duten pertsonak, bereziki haien prestakuntza, ahalmen eta trebeziak kontuan hartuz.

Goi-mailako hezkuntza (2014ko uztaila) • Unibertsitateko ikasketak.

Holding (2017ko ekaina) • Beste enpresa batzuen *akzioak* erosiz haien kontrola eskuratzeara helburu duen enpresa.

I+G (2014ko uztaila) • Ikerkuntza eta Garapena. Ikerkuntza zientzian eta teknologian enpresak aukera berriak esploratzea da, eta garapena aukera horiek enpresaren negozioa moldatzea, produktu eta zerbitzu hobekuntza eskainiz eta prozesuetan hobekuntzak burutuz.

Kaleratzearen kalte-ordaina (2015eko uztaila) • Kale-

ratzea bidezkoa ez denean, langileari enpresariak ordaindu beharrekoa, langileari sortutako kalteagatik. Orokorrean, antzinakotasun-urte bakoitzeko soldata-egun kopuru jakin batek osatzen du (adibidez, 33 eguneko soldata enpresan lan egindako urte bakoitzeko), hileko soldata-kopuru maximo batekin (adibidez, gehienez 24 hileko soldatarekin).

Kapital soziala (2017ko ekaina, 2014ko uztaila) • Sozietateko bazkideek egindako diru-ekarpenen multzoa, enpresak dituen ondasun eta eskubideen balio garbia ere osatzen duena.

Kluster (2014ko ekaina) • Sektore berean diharduten enpresen elkarte, maiz eskualde berekoak, lehiakorragoak izateko lankidetzan, adibidez I+G arloan (ikerkuntzan eta garapenean) aritzen direnak.

Kooperatiba (2017ko ekaina, 2014ko ekaina) • Bazkideen behar eta helburu ekonomiko eta sozialak betetzeko, jabetza partekatua eta kudeaketa demokratikoa dituen enpresa.

KPI (2017ko uztaila) • Kontsumorako Prezioen Indizea. Familiak kontsumitzen dituzten ondasun eta zerbitzuen prezioen bilakaera (inflazioa, alegia, prezioak igotzen direnean) jasotzen duen adierazle edo indize bat.

Lan-hitzarmena (2017ko uztaila) • Langileen eta enpresarien ordezkarren artean adostu eta sinaturiko akordioa da, langileen produktibitateari eta lan-kondizioak zehazten dituen epe jakin baterako.

Lehiakortasuna (lehiakorra) (2015eko ekaina, 2014ko ekaina) • Enpresa batek diharduen sektoreetan kokapen nabarmena eta abantaila konparatiboak izatea, prezioari, kalitateari edo beste ezaugarriei dagokionez, horretarako baliabideak modu eraginkor batean baliatuz.

Maniobra-funtsa (2015eko ekaina) • Aktibo korrantea ken pasibo korrantea. Pasibo ez korrantea ken aktibo ez korrantea. Enpresak bere jarduera aurrera eramateko behar dituen epe luzerako finantza-baliabideak: enpresak denboran zehar etengabe jarduten duenez, epe luzera beharko ditu horretarako erabiltzen dituen baliabideentzako finantzaketa.

Marka (2017ko uztaila) • Enpresa identifikatu egiten duen izen edo ikurra, eskaintako produktu edo zerbitzuari balio gehigarria eman eta beste enpresetako produktu eta zerbitzuetatik bereizteko sortu eta garatzen dena.

Merchandising (2017ko uztaila) • Produktuaren erosketan edo zerbitzuaren kontratazioa bultzatzeko helburuarekin salmenta-puntuaren egiten diren jardueren multzoa, hala nola salmenta-puntuaren dekorazioa eta produktuaren kokapen gokia.

Merkatua (2016ko uztaila) • Produktu eta zerbitzuen salerosketan parte hartzen duten enpresa, bezero eta beste eragileen multzoa, produktu-mota eta esparru geografiko jakin batzuei loturik. Adibidez, *Frantziako liburuaren merkatura* aipatzen da.

Merkatu-kuota (2017ko ekaina, 2015eko ekaina) • Merkaturu batean saltzen den totaletik enpresa jakin batek hartzen duen zati edo portzentajea.

Merkaturatzea (2016ko ekaina) • Produktu edo zerbitzu bat bezeroen eskura jarri eta saltzeko enpresa batek burutzen dituen ekintzen multzoa.

Nazioartekotu (2016ko ekaina) • Enpresek beste herrialdeetara zabalduz burutzen duten hazkunde-estrategia da, inportazioak eta esportazioak handituz eta atzerriko he-

rrialdeetan lantegiak zabalduz eta hango enpresa eta beste eragile ekonomikoekin harremanak estutuz, atzerriko kondizioetara egokitzuz betiere.

Oligopolioa (2015eko uztaila) • Enpresa gutxi batzuek diharduten merkatu-mota. Oligopolioan diharduten enpresa guztiak duten merkatu-boterea, hots, bakoitzaren erabakiek eragin nabarmena dute beste lehiakideen erabaketan.

Pasibo zirkulatuzailea (2016ko uztaila) • Enpresak epe laburrera dituen zorren multzoa. Pasibo korrantea eta epe laburreko pasibo galdagarria ere deitzen zaio.

PFEZ (2016ko ekaina, 2016ko uztaila, 2015eko ekaina) • Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Pertsona fisikoek, pertsona partikular eta indibidualek alegia, urtean jasotako soldata (lan-errenta) eta beste errentengatik ordaindu beharreko zerga. Gehienetan, jasotako errenta guztietatik portzentaje bat kentzen zaie, kontura egindako ordainketa moduan, eta urteko deklarazioa egitean, errenta totalen eta kontura egindako ordainketa guztien likidazioa egiten da, errenta totalaren zenbatekoa eta beste alderdi batzuk (seme-alaba kopurua, adibidez) kontuan hartuta.

Plan estrategikoa (2014ko ekaina) • Enpresaren hurrengo urtetako helburu nagusiak eta horiek lortzeko aurrera eraman behar diren ekintzak zehazten dituen agiria, zuzendaritzak prestatzen duena.

Populazio aktiboa (2014ko uztaila) • Lan merkatuan dauden pertsonen kopurua, hau da, lanean daudenak gehi lan bila dabiltzanak, langabetuak alegia.

Prezio-gerra (2014ko ekaina) • Merkatu berean diharduten enpresek produktu-mota bati behin eta berriz aplikatzen dizkieten prezio-murrizketak, beste enpresei merkatu-kuota hartu nahian eta haiek egindako prezio-murrizketei erantzunez, maiz kostu-preziotik behera. Ohikoa da *oligopolioetan*. Azkenean, enpresa guztiak galtzen ateratzen diren gurrpil zoroa bilakatzen da.

Sektorea (2017ko uztaila) • Jarduera ekonomikoa bantzen den ataletako bakoitza, horren baitan burutzen den ekoizpen-motaren arabera. Oinarriko sektore-banaketak lehen (nekazaritza, abeltzaintza), bigarren (industria) eta hirugarren (zerbitzuak) sektoreak bereizten ditu.

Sindikatu (2015eko uztaila) • Langileen elkarte boluntarioa, haien interes ekonomiko eta sozialak defendatu eta enpresarien aurrean ordezkatzen dituen.

Soldata (2017ko uztaila, 2015eko uztaila) • Beste baten kontura egindako lanaren trukean langile batek aldiro jasotzen duen ordainsaria, diruz gehienetan.

Sozietate-zerga (Sozietateen gaineko Zerga) (2016ko ekaina, 2015eko ekaina) • Merkataritza-sozietateek, zentzu zabalean enpresek alegia, urtean irabazitako mozkinengatik ordaindu beharreko zerga. Mozkin horien portzentaje moduan kalkulatu da.

Telekomunikazioen sektorea (2015eko uztaila) • Informazioaren transmisioan, emisioan eta errezepzioan diharduten enpresa eta erakundeen multzoa, hala nola Interneteko hornitzaileak eta telefoniako enpresak.

Zerga bereziak (2016ko ekaina) • *BEZ*az gainera, produktu berezi batzuen kontsumoa zergapetzen duten zergak, hala nola tabakoarena, alkoholun edariarena, eta argindarra-rena. Zeharkakoak dira, eta monofasikoak (hau da, azken kontsumitzaileak beste inork ez ditu ordaintzen).